



Gipuzkoako
Herritarren Batzarra.
**Landa-eremua
eta Klima.**

GIPUZKOAKO HERRITARREN BATZARRA

Batzarkideen gomendioak

2023ko urtarrila



Sarrera

Herritar talde bat gara. Gure helburua “**Nola bermatu dezakegu Gipuzkoako nekazal-jarduera klima larrialdiari aurre egiteko?**” galderari erantzutea da.

Gipuzkoako Herritarren Batzarrak irudikatutako etorkizuneko ikuspegia:

Espero dugu gizarteak nekazal sektorea gehiago ikustarazi eta baloratzea, garrantzia emanaz, parte hartuz eta dibertsifikazioa bultzatuz.

Etorkizunean, nekazal sektorea bioanitzagoa, eskuragarriagoa, malguagoa, jasangarriagoa, burujabeagoa, ekologikoagoa, errentagarriagoa eta hurbila izatea gustatuko litzaiguke; lankidetzaren eta nekazari eta erakundearen arteko erlazio estua bultzatuz, belaunaldien arteko erreleboa kontutuan izanez. Horretarako, proposamen hauek egingo ditugu:

1. Landa eremuko jabeei konpentsazio ekonomiko bat itzuli zerbitzu ekosistemikoetan dituzten ekarpen kopuruaren arabera eta gizarteari balio hauek zabaldu.

% 88ko adostasunarekin onartua.

Deskribapena

Ekosistemen zerbitzuak ezinbestekoak dira gizakien ongizaterako eta biziraupenerako. Janaria, ur garbia, airea eta ezinbesteko beste baliabide batzuk eskaintzen dizkigute. Zerbitzu horien egoerari buruzko informazio zehatzik gabe, ezinezkoa da haiek kudeatu eta babesteko moduari buruzko erabaki informatuak hartzea.

Badaude ikerkuntza erakunde batzuk Europa eta mundu mailan zerbitzu ekosistemikoak definitu, ebaluatu eta kuantifikatze lanetan dabiltzanak. Hauek ateratako emaitzak ekarri eta inplementatu beharko liriateke, Gipuzkoa edo Euskal Herri mailan, zerbitzu ekosistemiko hauek ematen dituztenei konpentsazio ekonomiko bat itzuliaz.

Enpresa eta partikularrek sortutako kutsaduraren araberako zergak jarri beharko liriateke aldundiaren zerga sistema batez (edo daudenak bateratu: CO₂-aren gaineko zerga, sigaus, etab.), eta zerga hauen bitartez bildutakoa, aipatutako erakunde hauek kalkulatu dituzten ekarpen ekonomikoak kontutan hartuta, landa eremuko jabeei konpentsazio sistemaren baten bitartez banatu.

Ekosistemen zerbitzuak neurtzeak haien balioa ulertzen lagunduko digu. eta politikak eta erabakiak hartzeko erabil daitezke, baita kontserbazio- eta kudeaketa-efortzuak lehenesteko ere.

Ekosistema-zerbitzuak neurtzeak eragile ezberdinen ikuspuntu eta balio desberdinak ulertzen lagun

diezaguke, tokiko komunitateak barne, kudeaketa jasangarrirako eta politika egiteko garrantzitsuak izan daitezkeenak.

Ekosistema-zerbitzuak neurtzeak onura anitzetarako aukerak identifikatzen lagun dezake. Ekosistema batek eskaintzen dituen zerbitzu desberdinak ulertzeak, eremu jakin batean, zerbitzu desberdinak konbinatzeko edo zerbitzu bat beste batekin trukatzeko aukera identifikatzen lagun dezake hauen oreka lortu ahal izateko.

Interesgarria litzateke gizarteari zerbitzu ekosistemikoek dakartzaten onurak helaraztea sentsibilizazio maila handiago bat lortzeko.

Laburbilduz, ekosistemen zerbitzuak neurtzea ezinbesteko urratsa da zerbitzu horien balioa eta garrantzia ulertzeko, eta nola kudeatu eta babestu egungo eta etorkizuneko belaunaldien mesederako.

Justifikazioa

Zerbitzu ekosistemikoak neurtzen ez baditugu, baliteke gizarte eta ekonomiei ematen dieten balioa guztiz ez ulertzea.

Horrek zerbitzu horien degradazioa edo galera ekar dezake, eta horrek eragin negatiboak eragin ditzake gizakien ongizatean, hala nola, elikagaien segurtasuna galtzea, uholdeak areagotzea eta airearen kalitatea gutxitzea. Gainera, biodibertsitatearen galera ere ekar dezake, eta horrek ekosistemen osasun eta funtzionamendu orokorrean eragin dezake.

Gomendio hau burutzeak zailtasun batzuk izan ditzake:

- Zerbitzuen balioa kuantifikatzeko zailtasuna: Ekosistemen zerbitzuak kuantifikatzen zailak dira askotan eta metodo ezberdinek emaitza desberdinak eman ditzakete.
- Datu falta: Zenbait kasutan, ekosistemari eta bere zerbitzuei buruzko datu edo informazio falta egon daiteke, zehaztasunez neurtzea zailduz.
- Espazio- eta denbora-aldakortasuna: ekosistemen zerbitzuak tokian eta denboran zehar alda daitezke, eta neurketetan aldakortasun hori kontabilizatzea zaila izan daiteke.
- Zerbitzuen arteko interakzio konplexuak: Ekosistemak sistema konplexuak dira, eta eskaintzen dituzten zerbitzuak elkarri lotuta egon

ohi dira. Horrek zaildu egin dezake banakako zerbitzuak isolatzea eta neurtzea.

- Ziurgabetasuna: ekosistemen zerbitzuen neurketekin lotutako ziurgabetasuna egon ohi da, eta horrek zaildu dezake haien balioari buruzko behin betiko ondorioak ateratzea.
- Ekosistemen zerbitzuen dirua irabazteko prozesua konplexua da, eta neurketa metodo ezberdinek zerbitzuen balioaren estimazio oso desberdinak ekar ditzakete.
- Sesgoa: Zerbitzu ekosistemiko hauek neurtzen dituenak sesgo jakin batzuk eduki ditzake non neurketaren emaitzan eragin dezaketen, zehaztasuna eta ziurtasuna galduz.

Aldi berean, honako onurak ekarriko ditu:

- Elikagaiak eta baliabideak hornitzea: basoek hainbat produktu eskaintzen dituzte, hala nola frutak, fruitu lehorrak, eztiak, haziak, sendagaiak eta egurra.
- Klimaren erregulazioa: basoek klima erregulatzen laguntzen dute karbonoa biltegituz eta ur-lurruna atmosferara askatuz, tokiko eta munduko klima-egonkortasunari lagunduz.
- Uholdeen babesa: basoek euri-ura xurgatzen eta atxikitzen laguntzen dute, uholde arriskua gutxituz.
- Airea eta ura araztea: basoek airea garbitzen laguntzen dute, kutsatzaileak eta karbono dioxidoa xurgatuz, eta ura araztu egiten dute sedimentuak eta kutsatzaileak iragaziz.

- Biodibertsitatearen kontserbazioa: basoetan animalia eta landare espezie ugari bizi dira, eta horrek biodibertsitatearen kontserbazioan laguntzen du.
- Aisialdia eta turismoa: basoak aisialdi-jarduerak egiteko leku ezagunak dira, hala nola, mendi-ibiliak, eskia, bizikleta eta kanpaldia, eta turismorako ere garrantzitsuak dira.
- Kultura zerbitzuak: basoek kultur balio garrantzitsuak dute komunitate askorentzat, eta leku sakratuak izan daitezke, mitoen eta kondairen iturri, eta kultur identitateari lagundu.
- Haizea: basoek haize handien aurka babesten laguntzen dute, ekaitzen eta zikloien kalteak murrizteko.
- Uraren zikloaren erregulazioa: basoek uraren zikloa erregulatzen laguntzen dute, iragazki natural gisa jokatuz, ura gordez eta ura ibaietara eta erreketara isuriz.
- Higadura erregulatzea: basoek lurzorua higadura erregulatzen laguntzen dute, lurzoria haizetik eta euritik babestuz, eta lurzoruan ura atxikitzen laguntzen dute.

Bibliografia

Bibliografia modura, aipatu nazioarteko hainbat proiektu ezberdinak egin direla edo martxan daudela. Aipatzeke:

- Ikusi Juan Luis Moragues hitzaldia, 127 puntua.

Mundu mailan:

- The Millennium Ecosystem Assessment (MEA): munduko ekosistemen egoeraren ebaluazio globala izan zen, 2001 eta 2005 artean egina.
- The Intergovernmental Science-Policy Platform on Biodiversity and Ecosystem Services (IPBES)
- The TEEB (The Economics of Ecosystems and Biodiversity)
- The Global Economic Assessment of Protected Area Management (GEA)
- The Landscape Approach Support Tool (LAST)
- The Ecosystem Services Partnership (ESP)
- The Ecosystem Services for Poverty Alleviation (ESPA)
- The Ecosystem Services for Urban Management (ESUM)
- The Ecosystem Services for Water and Adaptation (ESWA)
- The Ecosystem Services for Biodiversity Conservation (ESBC)
- The Ecosystem Services for Agriculture and Food Security (ESAF)

- The Ecosystem Services for Disaster Risk Reduction (ESDRR)
- The European Union's Biodiversity and Ecosystem Services in European Wetlands (BESW)
- The Ecosystem Services for Climate Change Mitigation and Adaptation (ESCCMA) - The Ecosystem Services for Sustainable Landscapes (ESSL)
- The Ecosystem Services for Sustainable Cities (ESSC)

European:

- The European Union's Nature and Biodiversity (Natura 2000)
- The European Forest Institute's (EFI) Forest Ecosystem Services and Management (FESM)
- The European Topic Centre on Biological Diversity (ETC/BD)
- The European Union's Biodiversity and Ecosystem Services in European Seas (BESES)
- The European Union's Biodiversity and Ecosystem Services in European Forests (BESEF)
- The European Union's Biodiversity and Ecosystem Services in European Agriculture (BESA)
- The European Union's Biodiversity and Ecosystem Services in European Urban Areas (BESUA) The European Union's Biodiversity and Ecosystem Services in European Mountains (BESM)
- The European Union's Biodiversity and Ecosystem Services in European Grasslands (BESG)

2. Baso kudeaketa sustatu I+G bitartez eta sektore estrategikoa bihurtuz.

% 84ko adostasunarekin onartua.

Deskribapena

Aldundiak, adibidez, Gipuzkoako geografia osoan zehar banatutako lursail publikoen % 5 mintegi esperimental gisa, I+G-rako erabiltzea proposatzen dugu, tokiaren ezaugarri desberdinetara hobekien egokitzen diren espezieak lortzeko, klima-aldaketaren mehatxuekiko erresistenteagoak izan daitezten, errentagarritasun ekonomiko handiagoa izan dezaten, baita beharrezkoak diren zerbitzu ekosistemikoentzat ere.

Eta egiten ari direna eta emaitzak gizartearekin (baso-jabeak eta herritar guztiak) partekatzea.

Badakigu saiakerak hasi direla (Itziar, Ereñozu...), baina ez da ez jarraipenik ez dibulgaziorik izan. Austriakoa bezalako ereduak kontuan hartu.

Aldundiaren aldetik epe luzerako konpromisoa eskatzen dugu (40 urte gutxi gorabehera).

Zerbitzu ekosistemikoek ekartzen dituzten onura ekonomikoek jabeengan erreperkutitu beharko lukete.

Justifikazioa

- Ikerketa horien bidez, murriztu edo saihestu egingo litzateke lursail pribatuak uztea eta bioaniztasuna hobetzea ekarriko lukete.
- Jabeek euren lurak errentagarriago egiteko aukera izango dute eta errentagarritasuna ateratzeko modu ezberdinak ezagutuko dituzte.
- Lurzoru publikoa baso-berritzea sustatuko luke eta abandonatutako lurzoru pribatuak saihestuko lirateke.
- Basoek sektore estrategiko gisa duten balioaz jabetzea eta belaunaldien arteko erreleboarentzat erakargarriagoa izatea ekarriko luke.
- Suteen aurkako balazta da.

3. Lehen sektorea estrategiko bihurtzea, balorazio ekonomikotik ekosistemikora igaroz, tartean diren eragileen parte-hartzearen bidez.

% 84ko adostasunarekin onartua.

Deskribapena

Gomendatzen dugu:

- Lehen sektoreak gaur egun plangintza politikoan duen garrantzia handitzea. Sektorean inplikaturako kideez osaturako batzorde berri bat sortzea («Ganbara»). Batzordeak jarraipen bat egin beharko du haren funtzionamendu egokia bermatzeko, haren funtzionamendua eta proposaturako neurrien eraginkortasuna neurtuz. Batzordearen jardura ez dute legegintzaldiek mugatu behar.
- ADR-ek (landa-garapeneko elkarteak) eta batzordeak elkarrekin lan egin behar dute sektorea sustatzeko.
- Baserri mistoak ere sartu beharko lirateke «Ganbara» delakoan, sektorearen zati handia direlako eta ahotsa eman beharko litzaiekeelako.
- Sektoreari baliabide ekonomikoak eta teknikoak gehitzea.
- Aplikatzen diren goitik beherako politikak aldatzea, behetik gorako eredu batera; lehenik, helburuak zehaztea, sektorean lanean ari den jendearekin, eta, ondoren, hori gauzatzeko legeak egitea.
- Lehen sektoreari bere garaian industriari eman zitzaion bultzada ematea, ekonomikoki, legeria egokituz.

- Nekazaritza-jarduerarako aberatsak/erakargarriak diren lurak babestea. Aukerak:
 - Alokairuan jartzea
 - Zerbitzu ekosistemikoengatik propietateak eta konpentsazioak mantentzea
 - Aldundiak udalei lurak ematea horiek ustia ditzaten
- Balioak aldatzeaz ari garenean, irabazi ekonomikoa (BPG) kontuan hartzeaz gain, ekosistema ere kontuan hartzeaz ari gara: CO2 xurgatzeko gaitasuna, etab.

Justifikazioa

- Administrazioak eta gobernuak lehen sektorea kontuan ez hartzeak kezkatzen gaitu.
- Gaur egungo legeek eragin negatiboa izan dezakete lehen sektorean.
- Hau da eman beharreko lehen urratsa, ondoren eraginkorrak izango diren politikak erabaki ahal izateko.
- Sektorea onura ekonomikoagatik bakarrik baloratzeak kezkatzen gaitu.

4. Haurtzarotik gizartea kontzientziatzea/ sentsibilizatzea, nekazaritza munduari eta klima aldaketari dagokienez.

% 100ko adostasunarekin onartua.

Deskribapena

Hainbat helburu lortu nahi ditugu proposamen honen bidez, besteak beste, kultura aldaketa, balioak aldatzea, sektoreari balio ematea eta Iparraldeko eredia erreferentziatzen hartzea.

Horretarako, alde batetik, Foru Aldundiak hezkuntza-sistemako eta beste atal batzuetako hezkuntza-plan espezifiko bat sortzea eta bultzatzea beharrezkoa dela pentsatzen dugu, esaterako:

- Lehen sektoreko bizitza eta lanbideari balioa emateko kanpainak/ekimenak.
- Irakasleentzako berariazko prestakuntza (Adb.: Berritzegune).
- Lehen sektoreari buruz udalek bultzatutako prestakuntza gurasoentzat eta, oro har, hezitzaileentzat (Adb.: tailerrak, hitzaldiak, antzerkiak).
- Etxean, eskola eta enpresetako jangeletan, etab. Kalitatezko elikadura sustatzea, (ultraprozesatuen gaitzespenarekin), Kmo bultzatuz.
- Kultur-etxeek ikastola edo ikastetxeekin batera lan egitea, irteerak, tailerrak, etab. antolatuz.
- Ikastola edo ikastetxeetan proiektuak eta hitzaldiak sustatzea, ondoren gaia landuz (HHTik hasita, DBH arte).

Bestetik, zabalpen eraginkorreko hedabideen sorrera edo erabilpena sustatzea, informazioa zabaltzeko, (Telebista, Sare-sozialak, iragarkiak, Aplikazioak,...).

Adibidez, Foru Aldundiak ETBri edota bestelako hedabideei diru-laguntzak ematea lehen sektoreari buruzko telesail eta publizitatea bultzatzeko, informazioa emateko eta jendea erakartzeko helburuarekin (Sustraiak bezala, Goazen programak daukan erakargarritasuna lortzeko). Horrez gain, erreferente erakargarriak sortzea sukaldaritzan Karlos Argiñano bezala.

Hirugarrenik, nekazal turismoek baserriko mundua erakusteko eta irakasteko konpromezua hartzea, horretarako, Foru Aldundiak jarraipen zorrotz bat eginez.

Amaitzeko, ongi kudeatutako nekazaritza eta basogintza bat klima-aldaketari aurre egiteko ezinbestekoa dela gizartean barneratzea garrantzitsua dela uste dugu.

Justifikazioa

Uste dugu, nekazaritza-jarduera ez dela balioan jartzen eta horrek asko kezkatzen gaitu, gainera, hezkuntza eta kultura edozein aldaketa sozialetarako palanka da. Betidanik entzuten den “Joan zaitez hirira, ez zaitez landa-eremuan bizi” doktrina aldatu nahi dugu.

Azken batean, honekin lortu nahi duguna da gizartean harrotasuna sortzea; belaunaldien arteko erreleboa bermatzea; landa-inguruneko paisaia zaintzea; biodibertsitatea zaintzea; klima-aldaketaren eragina murriztea; elikadura hobetzea; nekazaritza-munduaren inklusio-maila handiagoa eta tokiko produktua sustatzea.

Beharrezkoa iruditzen zaigu sektorearekiko maitasuna bultzatzea eta sektorea duintzea.

5. Lehen sektorea gaztetzeko neurriak aztertzea.

% 88ko adostasunarekin onartua.

Deskribapena

Gomendatzen dugu:

- Baserritarra izatea erraztu dadila.
- Landa-lurzorua birkalifikatzea, lurzoru urbanizagarriaren eta landa-lurzoruaren arteko balioa berdintzeko. Horrela, landa-lurzorua gazteentzat erakargarriagoa bihurtzen dugu, lehen sektoreari balio handiagoa emanez.
- Azpiegiturak ondo mantentzea, garraio publikoa landa-eremuetara eta baserrietara eramatea, irisgarriago egiteko.
- Etxeko gazteak proiektu komunitararako elkartzera animatzea (adibidez, ustiaketa partekatzea, batak besteari laguntzea).
- Plataforma digitalak erabiltzea publizitatea egiteko:
 - Aldundiak publizitate-kanpainak egitea egungo komunikabideetan (Instagram, TikTok, Youtube, LinkedIn), informazioa hurbiltzeko.
 - Foru Aldundiaren laguntza landa-eremuan aritzen diren youtuberrei/influencer-ei
 - Landa-munduko bizitza erakusten duten serieak/bideoak egitera animatzea, adibidez, Netflix plataformetan.
- Onura fiskala emantzipatu eta baserrietara doazen gazteentzat.

· Hezi:

- Landa-ingurunea gazteei erakustea, araututako hezkuntzatik abiatuta (teoria eta praktika).
- Erasmus ereduko landa-inguruneko hezkuntza intentsiboa ezartzea (Otsagabian egiten den bezala).
- Prestakuntza hori dagoela azpimarratzea.

Justifikazioa

Gure ustez, gazteek gaur egun ez dute lehen sektorea erakargarri ikusten.

Kezka lehen sektoreko biztanleria zahartzen eta murrizten ari delako da (batez besteko adina 52 urte). Esan digute lehen sektorea ez dela errentagarria.

6. KM.0. sustatzea 1. ekoizpen-fasetik.

% 81ko adostasunarekin onartua.

Deskribapena

Honako gomendio hauek egiten ditugu:

- Produktuen trazabilitatearen jarraipena egitea etiketen bidez
- Publizitate-kanpainak, tokiko merkatuak, produktuen kalitatearen aintzatespena eta abar bultzatzea, tokiko kontsumoa eta ekoizpena sustatzeko.
- Tokiko produktua eskuragarriago egiten duten laguntzak eta/edo pizgarri fiskalak.

Justifikazioa

Tokiko ekoizpen ekologikoa sustatu nahi da, lehen sektorea bultzatzeko eta klima-aldaketaren ondorioak gutxitzeko.

Funtsezkoa da kontsumitzaileei eta ekoizleei tokiko produktu ekologikoak kontsumitzearen garrantzia jakinaraztea, klima-aldaketaren ondorioak arintzeko.

Bitartekariak murrizteak edo ezabatzeak emisioak murrizten lagunduko luke eta tokiko ekoizpenaren errentagarritasuna hobetuko luke. Adibidez: Botilaratutako ura (kamioiek zenbat kilometro egiten dituzten ura kontsumitzeko, hemengo ura kontsumitu genezakeenean).

7. Nekazaritza ekologiko estrategikoa sustatzea, lehiakortasuna, produktibitatea eta merkaturatzea handitzeko erakunde bat sortuz/zabalduz.

% 78ko adostasunarekin onartua.

Deskribapena

Gomendatzen da organismo bat sortzea/handitzea (agian administrazioak lagunduta), kudeaketarako, produkzioarako, merkaturatzeko, lehiakortasunerako, ikusgarritasunerako, irisgarritasunerako eta abarretarako. Organismo hori arduratuko da beharrak jasotzeaz eta sektorearen solaskide izateaz.

Hauek dira, besteak beste, egin beharreko zereginak:

- Herritarrei baserriko produktu ekologikoetara sarbidea emango dien aplikazio bat sortzea, soberakinak edo merkatuetan, ekitaldietan edo lekuetan saltzen ez direnak aprobetxatzeko.
- Ekonomia zirkularra sustatzea ekoizle ekologikoen artean, modu ekologikoan landutako beste produktu batzuetarako produktu ekologikoen soberakinak % 100 aprobetxatzea helburu hartuta.
- Nekazaritza ekologikoan interesa duten edo inplikaturik dauden ekintzaileen edo pertsonen tutoretza.
- Kudeaketan laguntzea, produkzio-kostuak minimizatuz, merkatura sar daitezkeen prezio lehiakorrean.
- Publizitate-estrategiak sortzea, hala nola sare sozialen erabilera, marketin digitala, ekitaldien eta azoka txikien maiztasuna areagotzea, postontziak eta kartelak jartzea, etab.

Justifikazioa

Norberaren eta ingurumenaren osasunagatik egiten dugu gomendio hau; mantenimendua eta biodibertsitatea hobetzeko.

Ekoizpen ekologikora aldatu behar dugu, premia dagoelako eta derrigortuta gaudelako. Erreferentziazko datu gisa, Europako araudiaren arabera, 2030erako, ekoizpen ekologikoak landutako luraren % 25 izan beharko luke.

8. Tokiko produktua sustatzea, hobari fiskalak egokituz.

% 88ko adostasunarekin onartua.

Deskribapena

Ekoizpenerako eta erabilerarako (tabernak, jatetxeak, zerrategiak, kontserba-etxeak) hobari fiskalak aplikatzea proposatzen dugu, bertako produktua lehiakorragoa izan dadin.

Zerbitzuen eta industriaren sektorean tokiko lehengaien erabilera sustatzea (zura, esnekiak, kontserbak, etab.), laguntza/hobaria eskuratzeko tokiko lehengaiak erabiltzeko gutxienezko ehuneko bat finkatuz. Jantoki publikoetan egiten den bezala, obra publikoetan egin liteke tokiko zurarekin.

Azken kontsumitzaileak inplikatuak lituzkeen neurri osagarri gisa, ekoizleei hobari bat ematea proposatzen dugu, tokiko produktuaren produkzioko (jatorria) eta banaketako (bitartekaria) kostuei buruzko informazio zehatza emateko (adibidez, QR baten bidez).

Beharrezkoa balitz, zergak arautzen dituzten Foru Arauak aldatzea proposatzen dugu, hobari fiskal bat sartzeko.

Justifikazioa

Kezkatzen gaitu lehen sektoreak galerak izatea eta kostuak ez estaltzea eta, horregatik, landa-mundua uztea.

Klima-aldaketak guztiei eragiten digu, kostuak handituz eta ekoizpen-bolumena murriztuz. Horrek azken prezioan eragiten badu, tokiko produktua ez litzateke eskuragarria izango.

Produktua inportatzen badugu, aztarna ekologikoak eragin negatiboa du klima-aldaketan.

9. Baserri misto profesionala sustatzea.

% 84ko adostasunarekin onartua.

Deskribapena

Proposamena da lehen sektorean interesa duten pertsoneri erraztea baserria beste jarduera batzuekin uztartzeko aukera.

Enpresetan lan egiten duten pertsonen hainbat akordio hartu beharko lituzkete, hala nola ordutegia murriztea eta kontziliazioa.

Prestakuntza-zentroetan ikasten duten pertsonen ere akordio horietaz gozatu beharko lukete.

Laguntza horiek bateragarriak izan beharko lukete kanpoko diru-sarrerekin, hala nola, alarguntasunagatiko pentsioekin, dibertsitate funtzionalagatiko pentsioekin, bekak...

Proposamen hori garatzeko, beharrezkoa izango litzateke:

- Dirulaguntzen helburuen betetze-mailaren jarraipena egitea, iruzurra saihesteko.
- Baserritarren konpromisoa epe luzera ziurtatzeko araudi egokiak sortzea.
- Teknologia berrietara zuzendu nahi duten pertsonen difusio-lan egokia egitea.

Justifikazioa

Sektorearekiko interesa eta motibazioa areagotzea lortu nahi da; laguntzak ahalik eta gehien aprobetxatzea; landa-ingurunea egungo bizimoduarekin uztartzea; belaunaldi-erreleborako laguntza; eta lurrak eta baserriak bertan behera ez uztea eta horren ondoriozko arazo asko saihestea (suteak, garbitasun falta, erabilerarik eza, paisaiaren aldaketa).

